



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko otsailaren 12a

16. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Nafarroako 2014ko Kontu Orokorrei buruzkoa (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Kontseiluari buruzkoa. Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeen eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (4. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere gain har ditzan Tuterako “Fernando Remacha” Kontserbatorioaren kudeaketa eta finantzaketa. Luis Casado Oliver jaunak aurkeztu du (10. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da plan bat azter, gara eta ezar dezan, Félix Urbabien Helduen Irakaskuntzako Institutuko ikasleei prestakuntza osagarria eskaintzeko, lan-munduaren ezagutza emanen diena eta enplegua lortzen lagunduko diena. Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztu du (11. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak eskola-jazarpenaren aurkako borrokarekiko konpromisoa erakusten du. Cristina Altuna Ochotorena andreak aurkeztu du (12. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak aintzat hartzen ditu Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak eta Adituen Batzordeak estatuen hizkuntza politikari buruzko ebaluazio-txostenean egindako gomendio guztiak. EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldek aurkeztu du (13. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lan-mahai bat sor dezan, pobrezia energetikoari buruzko diagnostiko bat egiteko eta aukerak eta konponbideak aurkitzeko. Eskubide Sozialetako Batzordean izapidetzea (14. or.).

- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak babestu egingen baitu giza eskubideak urratzen ez direla bermatzeko prozesu oro, eta ETaren armagabetzea eta egituren eraispena exijituko baitu. Eledunen Batzarrak onetsia (15. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babesa erakusten baitu Emakumeen Genitalen Ebaketarekiko Zero Tolerantziaren Nazioarteko Eguna dela-eta. Eledunen Batzarrak onetsia (15. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak ETaren indarkeria terrorista gaitzesten baitu. Eledunen Batzarrak onetsia (16. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, San Martin Doktorea anbulatorioko eta Nafarroako Ospitaleguneko larrialdi zerbitzuen kolapsoari buruzkoa. Begoña Ganuza Bernaola andreak egin du (17. or.).
- Galdera, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren arauketari buruzkoa. M.^a Isabel García Malo andreak egin du (17. or.).
- Galdera, Nafarroan langabeziak gora egin duela-eta Eskubide Sozialetako kontseilariak egindako balorazioari buruzkoa. M.^a Isabel García Malo andreak egin du (18. or.).
- Galdera, etxebizitza babestuari buruzko foru lege berri bat onesteko ekimenari buruzkoa. Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak egin du (19. or.).
- Galdera, eskola-porrotari aurre egiteko Europako Gizarte Funtsak finantzatutako programari buruzkoa. María Teresa Sáez Barrao andreak egin du (19. or.).
- Galdera, Nafarroako Kutxaren Gizarte Ekintzaren ondasun artistiko, kultural eta higiezin inbentarioari buruzkoa. Patxi Leuza García jaunak egin du (20. or.).
- Galdera, NA-6900 errepideak Cascante-Fitero tartean duen egoerari buruzkoa. Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak egin du (21. or.).
- Galdera, eskola-mapari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (21. or.).
- Galdera, Zika birusari buruzko jarduketa-protokoloa dela-eta. Carlos García Adanero jaunak egin du (22. or.).
- Galdera, jakiteko ea zuzemenik egin den Nafarroako Unibertsitate Publikoaren aitzinean, Haur eta Lehen Hezkuntzako maisu-maistra graduako ikasleek ingeleseko C1 edo B2 maila frogatuz titulua lor dezaten. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (22. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak hartutako neurriei buruzkoa, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Baxilergoa egingen duten Ingeleseko Ikasteko Programako ikasleei jarraipen-aukera emate aldera. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (23. or.).
- Galdera, Done Jakue Bideko bizitegi-eremuaren Udalez gairako Proiektu Sektorialaren bidez antolatutako hirigintza-eremuari buruzkoa. Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak egin du (23. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako 2014ko Kontu Orokorreari buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 8an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, bestek beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 18. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Gobernuak, 2015eko ekainaren 24an hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako 2014ko Kontu Orokorreari buruzko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parla-mentura. Hari buruz, Kontuen Ganberak txosten bat eman du, 2016ko urtarrilaren 12ko 1. Nafarroa-ko Parlamentuko Aldikari Ofizialean argitaratua.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 157. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Ba-tzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Xedatzea Nafarroako 2014ko Kontu Oro-korreari buruzko Foru Lege proiektua Legebiltzarren Osoko Bilkuran irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziale-an argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Nafarroako 2014ko Kontu Orokorreari buruzko Foru Lege proiektua

Nafarroako 2014ko Kontu Orokorreari buruzko Foru Lege proiektua.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 18. artikuluan xedatutakoari jarraituz, Diputazioari dagokio Aurrekontu Orokorrak prestatu eta Kontuak formalizatzea Parlamentuan aurkezteko, bertan eztabaidatu, zuzendu eta, hala erabakiz gero, onets daitezen, hori guztia foru legeetan ezarrita-koari jarraituz.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 123. artikulua Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren esku uzten du Nafarroako kontu orokorren formulazioa. Horiek, behin Nafarroako Gobernuak onetsitakoan, Nafarroako Parlamentuari behar zaizkio igorri dagokion foru lege proiektuaren bidez, aipa-tutako foru legearen 130. artikuluan ezarri bezala.

Nafarroako Gobernuak eginak ditu egin beha-rreko tramiteak 2014ko ekitaldiko Kontu Orokorreari buruz, Kontuen Ganberak emana du behar den irizpena eta tramitatua dago Nafarroako 2014ko Kontu Orokorreari buruzko Foru Lege proiektua Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 157. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz. Bidezkoa da, beraz, foru lege hori onestea.

Artikulu bakarra. Nafarroako 2014ko Kontu Orokorrak onesten dira, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuak formulatu eta Nafarroako Gobernuak onetsiak, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 130. artikuluan ezarritakoaren ara-bera. Kontu Orokorren edukia Nafarroako Atarian argitaratuko da.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Kontseiluari buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 8an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintzarako ekimena erabiliz, Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeek eta Ezkerreko-Ezkerreko foru parlamentarien elkarteak Nafarroako Kontseiluari buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu dute.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Kontseiluari buruzko Foru Lege proposamena.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2016ko otsailaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Lege proposamena, Nafarroako Kontseiluari buruzkoa

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoko 28. ter artikulua, urriaren 27ko 7/2010 Lege Organikoak emandako testuaren arabera, xedatzen du Nafarroako Kontseilua Nafarroako Foru Komunitateko organo aholku-emaile nagusia dela, eta bere funtzioak autonomia organikoarekin eta funtzionalarekin betetzen dituela, objektibotasuna eta independentzia bermatze aldera. Hala ere, xedatzen du foru lege batek arautuko dituela Nafarroako Kontseiluaren osaera, hautaketa, eskudantziak, araubide juridikoa eta funtzionamendua.

Nafarroako Kontseiluari 1999an ezarri zitzaion araubide juridikoa gaurkotu eta haren funtzionamendua hobetzeko, autonomia organiko eta funtzionala duen organo aholku-emaile den alde-tik, eta haren kideen kualifikazio tekniko zorrotza, neutraltasun politikoa eta inpartzialtasuna bermatze, bidezkoa da erakunde hori foru lege honen bitartez arautzea.

I. KAPITULUA **Xedapen orokorrak**

1. artikulua. Izaera

1. Nafarroako Kontseilua Nafarroako Foru Komunitateko organo aholku-emaile goren da.

2. Nafarroako Kontseiluak bere eginkizunak autonomia organiko eta funtzionalez beteko ditu, objektibotasuna eta independentzia bermatze aldera.

3. Bere eginkizunetan diharduela, Nafarroako Kontseiluak ordenamendu juridikoa betetzen dela begiratu du. Abaguneari eta komenigarritasunari dagozkien alderdiak baloratuko ditu gaiaren izaerak horretara behartzen duenean edo kontsulta egin duen agintariak berariaz eskatzen duenean; halaber, baloratuko du Administrazioak eraginkortasun handiagoa izatea bere helburuak betetzerakoan.

4. Kontseiluari aholkua eskatzea nahitaezkoa izanen da hala ezartzen denean lege honetan edo beste batzuetan, eta gainerakoetan aukerakoa izanen da.

5. Kontseiluaren irizpenak idatziz emanen dira beti eta ez dira lotesleak izanen, legez kontrakoa esaten ez den bitartean.

II. KAPITULUA **Osaera eta antolamendua**

2. artikulua. Kontseilukideak.

1. Kontseilua bost kidek osatuko dute, izen aitortua eta gutxienez ere hamabost urteko lanbi-

de-esperientzia izan eta nafar izaera politikoa daukaten juristen artean izendatuak.

2. Nafarroako Kontseiluko kideak zortzi urtez izendatuko dira eta ezin izanen dira berriz hautatuak izan.

3. Kontseilukideak independenteak izanen dira eta ezin izanen dira kargutik kendu.

3. artikulua. Nafarroako Parlamentuak eginiko hautaketa.

1. Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurari dagokio hautatzea, gehiengo osoz, Nafarroako Kontseiluko kide izendatuak izateko proposatuko diren pertsonak.

2. Kontseiluan postu huts bat suertatzen denean, hilabeteko epean jarriko da abian hura betetzeko prozedura, hurrengo idatz-zatietan xedatuari jarraituz. Nolanahi ere, postu hutsak banaka bete beharko dira, postu huts bat baino gehiago betetzeko prozedurak metatzen utzi gabe.

3. Honakoek proposatu ahalko dituzte postu hutsak betetzeko izangaiak:

a) Parlamentu-talde batek edo batzuek.

b) Nafarroako abokatu-elkargoek edo, kasu bada, Nafarroako Abokatu Elkargoen Kontseiluak.

c) Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gobernu Kontseiluak.

4. Proposamenarekin batera, izangai bakoitzak bere onarpena adierazten duen ekididazki bat aurkeztuko da.

5. Nafarroako Parlamentuak, hautaketa egiten den Osoko Bilkuraren saioa egin baino lehen, izangaia edo izangaiak deituko ditu arloan eskuduna den batzordean agertzerantz, beren merezimenak azal ditzaten.

4. artikulua. Izendapena eta karguaz jabetzea.

1. Nafarroako Parlamentuko lehendakariak hautatu den pertsonaren izena jakinaraziko dio Foru Komunitateko lehendakariari, izenda dezan.

2. Izendatu eta hurrengo hogeita hamar egun naturalen barruan jabetuko dira karguaz kontseilukideak, zin eginez edo hitz emanez Nafarroako Foru Araubidea beti errespetatuko dutela, Konstituzioari eta legeei men egiten dietela eta beren karguari dagozkien betebeharrak zintzo beteko dituztela.

5. artikulua. Antolamendua.

1. Nafarroako Kontseiluaren eraketa baliozkoa izan dadin, bilkurak eta eztabaidak egin eta eraba-

kiak hartzeari dagokionez, beharrezkoa izanen da gutxienez ere kideetatik hiru bertaratuta egotea.

2. Kontseiluburua kontseilukideen artean hautatu da, gehiengo osoz eta isilpeko bozketan. Gehiengo osoa lortzen ez bada, beste bozketa bat egiten da. Horretan boto gehien eskuratu duen pertsona joko da hautatutzat. Berdinketarik gertatuz gero, beste bozketa bat egiten da, eta berdinketa errepikatu egiten bada, kontseilukiderik zaharrena suertatuko da hautatuta. Kontseiluburua hautatu ondoren, Foru Komunitateko lehendakariari proposatuko zaio hura izenda dezan. Kontseiluburuaren agintaldiak gehienez lau urte iraunen du, eta ezin izanen da berriz hautatu.

3. Kontseiluburuaren kargua hutsik badago, edo kontseiluburua kanpoan edo eri dagoenean, haren ordezkari ariko da idazkari ez den kiderik adindua, beste bat hautatu edo ordezkapenaren zergatia desagertu arte.

4. Kontseiluko idazkaria kontseilukideen artean hautatu da, gehiengo osoz eta isilpeko bozketan. Gehiengo osoa lortzen ez bada, beste bozketa bat egiten da. Horretan, boto gehien eskuratu duen pertsona suertatuko da hautatua. Berdinketarik gertatuz gero, beste bozketa bat egiten da, eta berdinketa errepikatu egiten bada, kontseilukiderik gazteena izendatuko dute. Kontseiluko idazkaria hautatu ondoren, Foru Komunitateko lehendakariari proposatuko zaio hura izenda dezan. Kontseiluko idazkariaren agintaldiak gehienez lau urte iraunen du, eta ezin izanen da berriz hautatu.

5. Idazkariaren kargua hutsik badago, edo idazkaria kanpoan edo eri dagoenean, haren ordezkari ariko da lehendakari ez den kiderik gazteena, beste bat hautatu edo ordezkapenaren zergatia desagertu arte.

6. artikulua. Kontseiluaren Osoko Bilkuraren eginkizunak.

1. Kide guztiek eratzten duten Osoko Bilkuran bildurik, honako eginkizunak dagozkio Nafarroako Kontseiluari:

a) Irizpenak onestea.

b) Funtzionamendurako barne arauak onestea.

c) Aurrekontuen eta kontuen aurreproiektuak onestea.

d) Plantilla organikoa, langileen zerrenda eta enplegu eskaintza publikoa onestea.

e) Urteko oroitidazkia onestea.

f) Errekurtso administratiboak ebaztea.

g) Nafarroako Kontseiluari dagozkion eta inongo beste organori esleituta ez dauden gainerako eginkizunak.

2. Kontseiluaren erabakiak baliozkoak izateko, kideen gehiengo osoa bertaratuta egotea beharrezkoa izanen da, eta, betiere, kontseiluburua eta idazkaria edo zuzenbidearen arabera haien ordezkariak.

3. Erabakiak hartuko dira bertaratzen diren kideen gehiengoaren botoaz. Berdinketarik gertatuz gero, kontseiluburuaren kalitatezko botoa izanen da erabakigarri.

7. artikulua. Kontseiluburutzaren eginkizunak.

Kontseilukide den aldetik dagozkion eginkizunez gain, hurrengoak ditu kontseiluburuak:

a) Nafarroako Kontseiluaren ordezkariak.

b) Kontseiluaren bileretarako deia egitea, eta bileretako buru eta zuzendari izatea.

c) Gaiak kontseilukideen artean banatzea, haien gaineko txostena egin dezaten, sarrera-ordena kronologikoaren arabera banaketa-sistema baten bitartez.

d) Kontseiluaren gastu-espeditentak baimentzea idazkariak haiek izapidetu baino lehen, bai eta 15.000 eurotik beherako kontratuak ere.

e) Erregelamendu organikoak finkatzen dituen gainerako eginkizunak.

8. artikulua. Idazkariaren eginkizunak.

Kontseilukide den aldetik dagozkion eginkizunez gain, hurrengoak ditu idazkariak:

a) Kontseiluko langileen burutza izatea, horren barne diziplina-ahalmena dela.

b) Kontseiluaren bilkuretarako behar den dokumentazioa aztertu eta prestatzea.

c) Kontseiluaren bilkuren akta egitea.

d) Kontseiluaren egiaztatze- eta jakinarazpen-organoa izatea.

e) Erregelamendu organikoak finkatzen dituen gainerako eginkizunak.

9. artikulua. Kargu-uztea.

1. Kontseilukideek honako arazoirekin batengatik utziko dute kargua:

a) Uko egitea.

b) Hiltzeagatik.

c) Kargualdia amaitzea.

d) Ezusteko bateraezintasuna.

e) Eginkizunen ez-betetze larria.

f) Doluzko delituagatik zigorra izatea, epai irmoaren ondoriozkoa.

g) Ezintasuna, ebazpen judizial irmoaren bidez deklaraturia.

h) Nafartasun politikoa galtzea.

2. Kargu-uztea Foru Komunitateko lehendakariaren foru-dekretu bidez gauzatuko da. Aurreko idatz-zatiko d) eta e) letretan aurreikusitako kasuetan eskatuko da Nafarroako Gobernuak bere kabuz nahiz Nafarroako Parlamentuaren eskariz izapidetutako espeditentea, eta interesdunari eta Kontseiluari entzunaldia emanen zaie.

Goiko a), c) eta h) letretako kasuetan, kontseilukideek beren eginkizunetan jardunen dute, ordezkaria izendatu arte eta karguaz jabetzen den arte.

10. artikulua. Etetea.

Nafarroako Gobernuak, Kontseiluaren eskariz eta haren iritzia entzun ondoren, kontseilukide-jarduna eten ahalko du 9.1. artikuluko d) eta e) letretan adierazitako kargu-uzte arazoiei buruz ebazteko behar den ezinbesteko eperako, eta, halaber, auzipetzea edo akusazio penal irmoa gertatzen den kasuetan.

11. artikulua. Betebeharrak.

Nafarroako Kontseiluko kideak behartuta egonen dira normaltasunez joatera jorratu beharreko gaien buruzko eztabaidarako bilkuretara eta deitzen zaie gainerakoetara; eskatzen zaizkien azterlan, ponentzia eta lanak –beren karguari dagozkionak– egitera, eta jarduketa eta eztabaidei buruzko sekretua gordetzera.

12. artikulua. Bateriaezintasunak.

Indarra duen beste edozein arau aplikatzearen ondorioz izan ditzakeen bateraezintasunez gain, Nafarroako Kontseiluko kide izatea kargu hauekin bateraezina izanen da:

a) Nafarroako Gobernuko kidea.

b) Europako Batasuneko, Estatuko, autonomi erkidegoetako zein toki entitateetako erakundeetako edozein kargu hautetsi.

c) Alderdi politiko, sindikatu edo enpresario erakunde bateko edozein zuzendaritza-kargu.

d) Fiskal edo epaile karreretan jardunean egotea.

e) Herri lan edo zerbitzu publikoen emakidadun edo kontratista diren enpresetako edozein zuzendaritza-kargu.

13. artikulua. Ordainsariak.

1. Kontseilukideek eskubidea izanen dute Kontseiluaren lan bilkuretara joategatik erregelamenduz ezartzen diren mantenu-sariak jasotzeko. Egun bakoitzeko ez da sortuko mantenu-sari bat baino gehiagorako eskubiderik.

2. Horrez gain, kontseilukide guztiek eskubidea izanen dute erregelamenduz ezartzen den diru-ordaina jasotzeko, irizpenetarako txostenak egiteagatik.

III. KAPITULUA**Eskumena eta funtzionamendua****14. artikulua.** Irizpenak

1. Nahitaez, honako afera hauetan eskatu beharko da Nafarroako Kontseiluaren aholkua:

a) Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa aldatzea.

b) Estatuko oinarritzko legedia garatzeko edo Europako erkidegoko zuzenbidearen transposizioa egiteko eman beharreko foru legeen aurreproiektuak egitea.

c) Nafarroako Kontseiluaren antolamendua, eskumena eta funtzionamendua ukitzen duten foru legeen aurreproiektuak edo administrazio-xedapenen proiektuak.

d) Legegintzako foru dekretuen proiektuak, tributu-harmonizaziokoak izan ezik.

e) Konstituziokontraotasun errekurtsioak eta Konstituzio Auzitegiaren aurreko eskumen-gatazkak.

f) Foru Komunitateak Estatuarekin eta autonomi erkidegoekin sinaturiko hitzarmen eta lankidetzak akordioak, horiek sinatzeko Nafarroako Parlamentuaren aurretiazko baimena behar denean, eta horiei buruzko edozein zalantza edo desadostasun.

g) Legeak betearazteko ematen diren erregelamenduen edo xedapen orokorren proiektuak, baita horien aldaketak ere, antolamendu hutsezkoak izan ezik.

h) Foru Komunitateko Administrazioaren esku-bide ekonomikoei buruzko transakzioak –epaiketa bidezkoak zein epaiketaz kanpokoak– eta aipatu eskubideei buruz sor daitezkeen gatazkak arbitrajepean jartzea, baldin eta, bi kasu horietan, auzigaia berrehun eta berrogeita hamar mila euro baino gehiagokoa bada. Edonola ere, kontsulta ez da nahitaezkoa izanen berariazko araudian aurreikusitako prozesu konkurtsaletako akordio eta hitzarmenetan.

i) Ondare-erantzukizuneko erreklamazioak, zeinetan hirurehun mila euroko edo gehiagoko kalte-ordaina eskatzen den.

j) Legearen arabera Nafarroako Kontseiluaren nahitaezko txostena edo aholku-organo baten irizpena behar duen beste edozein gai.

2. Halaber, Nafarroako Kontseiluak irizpena emanen du aukerako kontsulta gisa helarazten dizkieten gai guztietan, Nafarroako Gobernuak bere ekimenez hala erabakita eta bere lehendakariaren bitartez eskatzen duenean, edo zuzenbide publikoari loturiko Nafarroako entitate edo erakundeek eskatuta, edo Nafarroako Parlamentuak bere lehendakariaren bitartez hala eskatzen dionean, Eledunen Batzarraren, Legebiltzarreko Mahaiaren, bi parlamentu-talderen edo foru parlamentarien bosten baten ekimenez.

3. Kontseiluak txostena emandako gaiei buruzko xedapen eta ebazpene adierazi egiten dute Kontseiluaren irizpenaren arabera emandakoak diren ala hartatik urruntzen diren.

15. artikulua. Irizpena eskatzea.

1. Nafarroako Gobernuko lehendakariari eta Nafarroako Parlamentuko lehendakariari dagokie Nafarroako Kontseiluaren irizpenerako eskabidea egitea.

2. Nafarroako toki entitateetako buruei eta beste korporazio, erakunde edo entitate publikoen ordezkariak berenganatua duten organoei dagokie Nafarroako Kontseiluaren irizpena eskatzea, indarra duen legeriaren arabera nahitaezkoa den kasuetan.

16. artikulua. Irizpenen onespina eta publizitatea.

1. Irizpenak Kontseiluaren Osoko Bilkurak onetsiko ditu. Gehiengoak hartzen duen erabakiaren edo haren arrazoiketaren aurkako iritzia dutenek idatziz azaldu ahalko dute beren boto partikular arrazoitua, zeina irizpenari erantsiko baitzaio.

2. Onesten direnetik hilabeteko epean argitaratuko dira Kontseiluaren irizpenak, haren erregelamendu organikoan aipatzen diren bideetatik.

17. artikulua. Epeak.

Eskuarki, Nafarroako Kontseiluak berrogeita bost egun balioduneko epean eman beharko ditu eskatzen zaizkion irizpenak. Organo eskatzaileak espedientea presakoa dela justifikatzen duen kasuetan, Kontseiluak epea hamabost egun baliodunera arte jaitsi ahalko du.

Salbuespen gisa, Kontseiluak, ebazpen arrazoitu bidez, epe orokorra luzatu ahalko du, gehiezen ere hogeita hamar egun baliodun gehiago.

Aipaturiko ebazpena txostena eskatu duenari jakinaraziko zaio.

Kontseiluak irizpenik ematen ez badu adierazitako epean, izapidea beteta dagoela eta aholkua eskatu zaion gaiari buruz eragozpenik ez dagoela ulertuko da.

18. artikulua. Dokumentazioa.

Kontsulta eskaerarekin batera, aztertuko den aferaren inguruko dokumentazio osoa aurkeztu beharko da. Kontseiluak uste badu espedientea osorik ez dagoela, kontseiluburuaren bitartez eskatu ahalko ditu beharrezkotzat jotzen diren aurrekari, txosten eta probak. Kasu horretan, irizpena emateko aurreko artikuluan ezarri epea eten egingen da; behin baino ez, betiere.

19. artikulua. Alde interesatuei entzutea.

Kontseiluaren aztergai jartzen diren aferetan interesa duten aldeei entzunaldia eman ahal zaie Kontseiluburuak erabakiko du entzunaldia egitea, interesdunek eskatuta edo bere kabuz. Entzunaldi hori beti egingen da administrazio publiko batek kontsultan zuzeneko interesa izan eta hala adierazten badu.

20. artikulua. Adituen txostenak eta parte-hartzea.

1. Kontseiluak administrazio publikoei eta bes-telako erakunde publikoei irizpena emateko beharrezkotzat jotzen dituen aurrekari, txosten tekniko edo dokumentuak eskatu ahalko dizkie.

2. Kontseiluak, halaber, aztergai jartzen zaizkion aferetan gaitasun tekniko nabarmena duten pertsonen parte-hartzea eskatu ahalko du, txostena egin dezaten; kontratu publikoei buruzko legedia zaio enkargu horri aplikatzekoa. Kasu horretan, Kontseiluaren azken irizpenean adierazi beharko da zehazki zer eskatu zaien txosten-eskabidean, eta irizpenarekin batera aurkeztuko da.

21. artikulua. Oroit-idazkia.

Kontseiluak urtero oroit-idazkia prestatu eta Nafarroako Parlamentuari eta Nafarroako Gobernuari igorriko die. Bertan, aurreko ekitaldiko jarduna azaldu eta jarduketa juridiko-administratiboa hobetzeko egoki deritzen iradokizunak aurkeztuko ditu.

IV. KAPITULUA

Araubide juridikoa, ekonomiko-finantzarioa eta langileei buruzkoa

22. artikulua. Araubide juridikoa.

1. Nafarroako Kontseiluari ezarriko zaio Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari aplika-

tzekoa den araubide juridiko bera, kontratazioari, erantzukizunari, gardentasunari eta administrazio- edo barne-araubidekoak diren gainontzeko arloei dagokienez.

2. Kontseiluburuak Kontseiluko administrazio- edo barne-araubidearen arloan emandako egingen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahalko da, Kontseiluko Osoko Bilkurari zuzendua. Kontseiluak arlo beretan hartzen dituen erabakiek amaiera emanen diote bide administratiboari.

23. artikulua. Ekonomia- eta finantza-araubidea.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari aplikatzekoa zaion ekonomia- eta finantza-araubideari loturik egonen da Nafarroako Kontseilua.

2. Nafarroako Kontseiluak bere urtealdi-aurrekontuaren aurreproiektua prestatuko du, Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuan sartua izateko, programa independente gisa.

3. Nafarroako Kontseilua, independentzia organiko eta funtzionala badu ere, Foru Komunitateko Administrazioaren ekonomia- eta aurrekontu-kudeaketari buruzko arau orokorren menpe egonen da.

24. artikulua. Langileak.

1. Nafarroako Kontseiluaren zerbitzuko langileen araubidea Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileei oro har aplikatzekoa zaiena izanen da.

2. Maila igoerako mugigarritasuna eta maila bereko mugigarritasuna Nafarroako Kontseiluaren eta Foru Komunitateko Administrazioaren artean aplikatuko dira. Horretarako, Nafarroako Kontseiluko funtzionarioek parte har dezakete Foru Komunitateko Administrazioak egiten dituen lanpostu-betetze lehiaketetan eta txanda murriztuaren bidez lanposturatzeko hautaprotetan, eta alderantziz.

3. Idazkariak langile-aferetan emandako egingen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahalko da, Kontseiluko Osoko Bilkurari zuzendua.

Lehen xedapen iragankorra.

1. Nafarroako Kontseiluko egungo kideek kargua utziko dute beren agintaldia amaitzen dutenean, aurreko araudian ezarritako epea laburtuz edo luzatuz, hurrengo idatz-zatietan xedatu bezala.

2. Foru lege honek indarra hartzen duenean, beren kargua utziko dute Nafarroako Gobernuak izendatutako Nafarroako Kontseiluko egungo bi kideek.

3. Foru lege honek indarra hartzearekin, bere kargua utziko du Nafarroako Parlamentuak aurreko araudiaren arabera hautatutako kideetatik karguan denbora gehien eman duenak. Antzinasun bera izanez gero, zozketa bidez hautatuko da nork utziko duen kargua.

4. Foru lege honek indarra hartu eta bi urteren buruan, bere kargua utziko du, kasua bada, Nafarroako Parlamentuak aurreko araudiaren arabera hautatutako kideetatik karguan denbora gehien eman duenak. Antzinasun bera izanez gero, zozketa bidez hautatuko da nork utziko duen kargua.

5. Foru lege honek indarra hartu eta lau urteren buruan, bere kargua utziko du, kasua bada, Nafarroako Parlamentuak aurreko araudiaren arabera hautatutako kideetatik karguan denbora gehien eman duenak. Antzinasun bera izanez gero, zozketa bidez hautatuko da nork utziko duen kargua.

6. Foru lege honek indarra hartu eta sei urteren buruan, bere kargua utziko du, kasua bada, Nafarroako Parlamentuak aurreko araudiaren arabera hautatutako kideetatik karguan denbora gehien eman duenak. Antzinasun bera izanez gero, zozketa bidez hautatuko da nork utziko duen kargua.

7. Foru lege honek indarra hartu eta zortzi urteren buruan, bere kargua utziko du, kasua bada,

Nafarroako Parlamentuak aurreko araudiaren arabera hautatutako kideetatik karguan denbora gehien eman duenak. Antzinasun bera izanez gero, zozketa bidez hautatuko da nork utziko duen kargua.

Bigarren xedapen iragankorra.

Behin aurreko xedapen iragankorrean araututako kargu-uzteak gertatuta, Kontseiluko kideek beren kargua utziko dute, eta kargu horien berritzea egingen da foru lege honetako artikuluetan xedatuaren arabera.

Xedapen indargabetzailea.

Indarrik gabe uzten da Nafarroako Kontseiluari buruzko martxoaren 16ko 8/1999 Foru Legea, bai eta foru lege honetan ezarritakoaren kontra doazen maila bereko edo apalagoko xedapen oro.

Azken xedapenetan lehena.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio foru lege hau garatzeko arauak emateko eta foru lege hau betetzeko behar diren neurriak hartzeko.

Azken xedapenetan bigarrena.

Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da bere gain har ditzan Tuterako “Fernando Remacha” Kontserbatorioaren kudeaketa eta finantzaketa.

LUIS CASADO OLIVER JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Luis Casado Oliver jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita bere gain har ditzan Tuterako “Fernando Remacha” Kontserbatorioaren kudeaketa eta finantzaketa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko otsailaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeko kide Luis Casado Oliver jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, mozio hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Tuterako “Fernando Remacha” Musika Kontserbatorioa kudea eta finantza dezan, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Nafarroako Erriberak musika-tradizio handia dauka, udalaren musika eskolen arrakastak erakusten duenez. Arrakasta horren erakusgarri dira udal-banden, mota guztietako musika-taldeen nahiz abesbatzen kantitatea eta kalitatea... eta, batez ere, antolatzen diren musika-ekitaldietan herritarrek izaten duten parte-hartze masiboa.

Ikusita Iruñetik Tuterara dagoen distantzia, kontserbatorioko ikasleen adina –zeinek bateragarri egin behar izaten baitituzte derrigorrezko ikasketak eta musika-prestakuntza– eta Erriberako biztanle-kopurua, “Fernando Remacha” Kontserbatorioa mantendu eta hobetzea beharrezkoa da.

Tuterako Udalak (bere tamainarengatik, aurrekontuarengatik, hezkuntza-arloko eta , bereziki, musika-hezkuntzaren arloko kudeaketa-ahalmenarengatik), ahalegin handi-handia egin behar izaten du giza baliabideetan eta baliabide ekonomikoetan, kontrol egoki bat egiteko, betiere Nafarroako Gobernuaren teknikarien laguntzarekin, hori gabe ezinezkoa izanen bailitzateke guztia.

Nafarroako Gobernuak eta Tuterako Udalak urte anitzeko hitzarmen bat sinatu zuten “Fernando Remacha” Musika Kontserbatorioa kudeatzeko eta finantzatzeko. Hitzarmen hori 2015-2016 ikasturtean bukatzen da; hortaz, behin betiko konponbide bat emanen duen planteamendu bat egin beharra dago urteko lehen hilabeteotan.

Horregatik, honako hau proposatzen dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du “Fernando Remacha” Kontserbatorioaren kudeaketa eta finantzaketa bere gain har ditzan, egoki irizten dion formula juridikoa baliatuta eta denbora mugarik gabe.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak eta Tuterako Udala premiatzen ditu bost hilabeteko epean konponbide bat negoziatu eta planteatu dezaten.

Tuteran, 2016ko otsailaren 1ean

Foru parlamentaria: Luis Casado Oliver

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da plan bat azter, gara eta ezar dezan, Félix Urabaien Helduen Irakaskuntzako Institutuko ikasleei prestakuntza osagarria eskaintzeko, lan-mundua- ren ezagutza emanen diena eta enplegua lortzen lagunduko diena.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita plan bat azter, gara eta ezar dezan, Félix Urabaien Helduen Irakaskuntzako Institutuko ikasleei prestakuntza osagarria eskaintzeko, lan-mundua-
ren ezagutza emanen diena eta enplegua lortzen lagunduko diena.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko otsailaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-
taldeari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 196. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

“Félix Urabayen” Helduen Bigarren Hezkuntzako Nafarroako Institutuak bigarren hezkuntzako eta batxilergoko helduentzako ikasketak eskaintzen ditu, bi modalitatetan: presentziala eta urrutikoa. Azken hamarkada honetan, ikasle-kopuruak nabarmen egin du gora, lan-merkatuaren egoeraren eraginez. Ikasle gehienak, ikus daitekeenez, 30 urtetik beheitikoak dira (1.150 ikasletik, 700 gutxi gorabehera; eta 700 horietatik erdia 20 urtetik

beheitikoak dira) eta enplegu bat bilatzen dute, edo lanbide heziketa arautuan sartzea.

Langabezia, immigrazioa eta ikastetxeko ikasleen parte handi baten ezaugarri diren beste faktore batzuk (ikastetxeko langileen eskarmentuarekin batera) ikusita egiazta daiteke beharrianak aldatuz joan direla eta beharrianak ezin direla soilik mugatu ezagutza akademikoak lortzera.

Nafarroak, azken urteotan, bere ikasleen beharriari egokitzen jakin izan du; hori dela-eta, ez da harrizkoa Foru Komunitateko irakaskuntzak lortu duen maila.

Nafarroako hezkuntza-sistema aitzindaria izan da bere ikasleen inklusioa, garapena eta hezkuntza- nahiz lanbide-arloko barneratzea ahalbidetuko duten hezkuntza-neurriak aplikatzean. Aniztasunarekiko arretak argi eta garbi erakusten du gure erkidegoak prestakuntzari eta aukera-berdintasunari dagokienez daukan konpromisoa.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du plan bat azter, gara eta ezar dezan Hezkuntza eta Eskubide Sozialetako departamentuen bidez, “Félix Urabayen” Helduen Bigarren Hezkuntzako Nafarroako Institutuko ikasleei prestakuntza mota bat eskaintze aldera, prestakuntza akademikoaren osagarri, lan-mundua-
ren ezagutza ahalbidetu eta lana lortzen lagunduko diena.

Hartara, plan horrek honako hauek jaso behar-
ko lituzke, besteak beste: ikasleen lan-orientabi-
dea, institutuan bertan prestakuntza-jarduerak egi-
tea eta beharrezkoak diren baliabide materialak
eta giza baliabideak jartzea.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 3an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak eskola-jazarpenaren aurkako borrokarekiko konpromisoa erakusten du.

CRISTINA ALTUNA OCHOTORENA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Altuna Ochotorena andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak eskola-jazarpenaren aurkako borrokarekiko konpromisoa erakusten baitu.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzera, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko otsailaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu taldeari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Cristina Altuna Ochotorena andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 196. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Eskola-jazarpena –bullyinga– gizarte-gaitz bat da, zeinean haur batek txarra pairatzen baitu, etengabe eta a propos, ahoz, moldez nahiz fisikoki. Egindako txosten bakanen artean, nabarmentzekoa da Arartekoak eta Unicef-ek egin zutena. Horren arabera, galdeketa erantzun ziotenen % 4,1ek aitortzen zuten eraso fisikoak pairatu izana, eta % 8,5ek kideen mehatxuak jasotzen zituen, beldurra eragitekoak.

Garapen teknologikoarekin, fenomeno hori aldatuz joan da, eta ziberjazarpena edo ziberbullyinga sortu da. Jazarpena baliabide teknologikotara hedatzean datza, telefonoz edo Internetez. Pertsona bat (jazarlea) beste pertsona baten (jazarriaren edo bulliedaren) autoestimua hondatu edo ahultzen saiatzen da, hari mehatxuzko, larde-riazko edo xantxia egiteko mezuak bidaliz, posta elektronikoa, berehalako mezularitza (txat edo messenger gisakoak), smsak edo sare sozialak baliatuta.

Eskola-jazarpenak biktimengan dauzkan ondorioak dira, beste askoren artean, autoestimua baxua garatzea, jarrera pasiboak, nahasmendu emozionalak, arazo psikosomatikoak, depresioa, antsietatea eta are pentsamendu suizidak ere. Horrek eraman zituen, adibidez, Jokin, Alan edo Diego –adibide batzuk jartzearren– beren buruaz beste egitera.

Ondorio negatiboak ez dira soilik biktimengan ematen; izan ere, erasotzaileak indarkeriazko jarrera haserrekor, oldarkor eta intoleranteak gartzen ditu, baita kontrol-eza ere, aginpide esajertuaren erakusgarri, edo ikasketekiko interesa galtzen du eta eskolan porrot egiten, besteak beste.

Neska-mutiko askok pairatzen dute eskola-jazarpena edo ziberjazarpena; horrenbestez, botere publikoek gaitz horren prebentzioa bultzatu behar dute, berdintasunaren aldeko borrokaren atal gisa, zeina ez baita osoa izan baldin eta aldi berean ez bada lan egiten beste desberdinkeria batzuei aurre egiteko; esate baterako, matxismoari, xenofobiari, homofobiari edo arrazakeriari.

Botere publikoei, hezkuntza-erkidegoari eta gurasoei dagokie gertakari horien aitzinean esku hartzea.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

– Nafarroako Parlamentuak eskola-jazarpenaren aurkako borrokarekiko konpromisoa erakusten du.

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Foru Komunitateko eskola-jazarpenari eta -indarkeriari buruzko txosten bat egin dezan.

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du dauden jarduketa-protokoloak gara ditzan eta eskola-jazarpena desagerrarazten lagunduko duten neurri berriak bila ditzan.

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du prebentzio eta informazio kanpainak egin ditzan, bai eta prestakuntza-jarduerak ere, teknologia eta sare sozialak behar bezala erabiltzera bideratuak.

Iruñean 2016ko otsailaren 3an

Foru parlamentaria: Cristina Altuna Ochotorena

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak aintzat hartzen ditu Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak eta Adituen Batzordeak estatuen hizkuntza politikari buruzko ebaluazio-txostenean egindako gomendio guztiak.

EH BILDU NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak aintzat hartzen baititu Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak eta Adituen Batzordeak estatuen hizkuntza politikari buruzko ebaluazio-txostenean egindako gomendio guztiak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko otsailaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duen parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 196. artikuluen eta hurrengo babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Munduko hizkuntza aniztasunean gertatzen ari den galera bistakoa da. 7.000 hizkuntza inguru dira munduan bizirik dirautenak, adituen kalkuluen arabera, baina soilik horien erdia dira –hori ere adituen kalkuluen arabera–, XXI. mendearen bukaeran bizirik iraunen dutenak. Ageriko galera horrek, nolahi ere, gizartearen, herritarren eta erakundearen kontzientzia piztu du. Hizkuntza aniztasunaren balioa aintzakotzat hartzen da gaur egun, eta horrek hizkuntza gutxituen aldeko adierazpenak eta politikak aktibatzea ekarri du.

Nazioarteko testuinguruan, eta zehazkiago Europakoan, adierazpen, itun eta lege-xedapen ugari onartu eta sinatu da aniztasun horren mesedetan. Europako erakundeek ere urratsak egin dituzte, horrenbestez, hizkuntza aniztasun hori babesteko eta sustatzeko norabidean.

Urrats normatibo eta sustatzaile horien ildoan, eta, besteak beste, Europako hainbat Estatuk sinatutako eta berretsitako Erregio edo Gutxiengo Hizkuntzen Europako Itunarekin koherentzian, Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak eta Adituen Batzordeak Estatuen hizkuntza politikaren inguruko ebaluazio txostenak egiten dituzte, eta hainbat aholku eman edo iradokizun egin.

Maiztasun jakin batekin egiten den txosten horietako azkenak zalantzan jarri du, berriz ere, Espainiako Estatuan egiten ari den hizkuntza politika, baita Estatuko hizkuntza gutxituen inguruan Europako Itunak dioena betetzeko egiten ari den ahalegina eta erabiltzen ari den zorrotasuna ere. Ez da hori gertatu den lehendabiziko aldia, inondik ere, Espainiako Estatuaren eta bertako botere publikoen jardura –baita botere autonomikoa ere, Nafarroakoa barne– auzitan jartzea konstante bat izan delako. Hamabost urte eta lau ebaluazio igaro ondoren, lehendabiziko eta azkeneko txostenetako gomendio batzuk errepikatu egiten dira.

Aipatutako azken txosten horretan, zehazki, zenbait gomendio egiten dira; justiziarri dagozkie horietako bi, eta, herritarrek justizia administrazioarekin euskaraz egiteko duten eskubidea gauza dadin, marko juridikoa aldatzea eta hizkuntza ezagutzen duten langileen proportzio egokia bermatzea gomendatzen du. Estatuko administrazioari dagokionez, hizkuntza koofizialen presentzia ziurtatzeko neurriak har daitezela ere proposatzen da.

Beste bi gomendio zerbitzu publikoei dagozkie zuzen-zuzenean. Osasun zerbitzuetan, bereziki, hizkuntza koofizialen presentzia bermatzeko neurriak har ditzan eskatzen du. Eta hezkuntzaren alorrean, hezkuntza hirueleduna ez dadila izan tokiko hizkuntzen babesaren eta sustapenaren kalterako.

Horiek, besteak beste, Europako Kontseiluaren txostenak jasotakoak. Hor aipatzen diren auzietako batzuk edo eginbeharretako batzuk Estatuko Gobernuari eta Administrazioari dagozkie, eta beste batzuk Nafarroako Gobernuaren eskumenekoak dira.

Nafarroan gertatu den aldaketa politikoaren eta instituzionalaren ondorioz, hizkuntza politikak beste norabide bat hartu du, eta orain arte euskara bazterrean uzteko eta ikusezin bihurtzeko ahalegina zena, herritarron hizkuntza eskubideak bermatzeko eta euskararen normalizazioa laguntzeko ahalegin bihurtu behar da. Urratsak ematen hasi da, bistan denez, baina bada oraindik ildo horretan egin beharreko bide luze bat.

Aurreko paragrafoetan esandako guztia kon-tuan izanda:

Akordio proposamena

1. Nafarroako Parlamentuak aintzat hartzen ditu Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak eta Adituen Batzordeak Estatuen hizkuntza politikari

buruzko ebaluazio-txostenean egindako gomendio guztiak.

2. Nafarroako Parlamentuak dei egiten dio Nafarroako Gobernuari, orain arte Espainiako Estatuak Eurokarta betetzeko egin duen ahalegin ezdeusa ikusita, Estatuko Gobernuari eska diezaion, irmotasun osoz, hari dagozkion neurriak bete ditzan.

3. Nafarroako Parlamentuak dei egiten dio Nafarroako Gobernuari, bere eskumenekoak diren alorretan, eta bereziki osasun zerbitzuetan eta hezkuntzan, Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak eta Adituen Batzordeak emandako gomendioak betetzeko neurriak har ditzan.

Iruñean, 2016ko otsailaren 3an

Foru parlamentaria: Dabid Anaut Peña

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lan-mahai bat sor dezan, pobrezia energetikoari buruzko diagnostiko bat egiteko eta aukerak eta konponbideak aurkitzeko.

ESKUBIDE SOZIALETAKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Eskubide Sozialetako Batzordean izapidetu dadin Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lan-mahai bat sor dezan, pobrezia energetikoari

buruzko diagnostiko bat egiteko eta aukerak eta konponbideak aurkitzeko. Mozioa 2015eko abenduaren 28ko 47. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak babestu egingen baitu giza eskubideak urratzen ez direla bermatzeko prozesu oro, eta ETaren armagabetzea eta egituren eraispena exijituko baititu.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2016ko otsailaren 8an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroak hamarkada gehiegitan bizi izan ditu indarkeria bidegabearen molde ezberdinak eta giza eskubideen eta eskubide zibil eta politikoen urraketak. Gure ustez, nahitaezkoa da Aldaketaren aldeko Gobernuak bakearekiko, normaltasunarekiko eta bizikidetasun demokratikoarekiko konpromisoa hartzea eta Memoriaren Kudeaketa Integralaren ikuspuntutik taxututako plan bat bultzatzea; planak bere baitan jasoko ditu, alde batetik, 1936ko eta frankismoaren indarkeria, eta, bestetik, oraintsukoa, eta gure gizartean bakea eta bizikidetasuna lortzera bideratuta egonen da.

Pertsonen duintasunaren eta oinarrizko giza eskubide guztien errespetu erabatekotik abiatuta, bakearekiko gure konpromisoa aldarrikatzen dugu, bai eta helburu politikoetarako indarkeriaren erabilerarekiko arbuioa ere, norena ere den: ETarena, ultraeskuineko taldeena edo Estatuaren funtzionarioena. Bake horrek –biktima guzti-guztiekiko memoria, justizia eta erreparaziodunak– exijitzen du biktima-eragileek beren jardunaren ondorioz eragindako kaltea aitortzea eta biktimei egiarako eskubidea aitortzea. Hori guztia, indar politiko guztiek eta gizarteak iraganari buruzko hausnarketa bateratu bat eginda, zeinak balioko

baitu autokritika sustatzeko, erantzukizunak onartzeko, indarkeria gizartean deslegitimatzeke eta giza eskubideen aldeko apustua sendotzeko.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak, bakearekiko eta bizikidetasunarekiko konpromisoa oinarri, giza eskubideen urraketak errepika ez daitezen bermatzera bideratutako prozesu oro babestuko du, eta exijitu egingen du ETaren desarmatzea egiaztagarria izan dadin eta hark erakunde gisa dituen egituren eraispena ordenatua, segurua, behin betikoa eta baldintza politikorik gabekoa izan daitezen, eta zigorgabetasun eremu eta neurri guztiak desager daitezen.

Halaber, gerta litezkeen indarkeria-ekintza edo giza eskubideen urraketa oro aringarririk gabe arbuiatu eta gaitzesteko konpromisoa hartuko du Gobernuak, halako urraketa norena ere den: ETarena, ultraeskuineko taldeena edo Estatuaren funtzionarioena.

Hitz batean, lan egingen da indarkeria eta haren erabiltzaileak iraganeko errealitate bat direneko egoera bat lortzeko eta oraina eta etorkizuna bizikidetasunak, demokraziak, askatasunak eta bakeak markatua egon dadin” .

Iruñean, 2016ko otsailaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babesa erakusten baitu Emakumeen Genitalen Ebaketarekiko Zero Tolerantziaren Nazioarteko Eguna dela-eta.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2016ko otsailaren 8an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere babesa adierazten du Emakumeen Genitalen Ebaketarekiko Zero Tolerantziaren Nazioarteko Eguna dela-eta, eta Estatu Gobernua eta Nafarroako Gobernua premiatzen ditu abian jar ditzaten era horretako kasuak prebenitzeko jarduketa eta sentsibilizazio protokoloak.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako herritar guztiei helarazi nahi die adierazpen hau, gogotan har dezaten, eta gonbit egiten die Parlamentuan otsailaren 8an, 18:30ean, egingen den prestakuntza-saioan parte har dezaten”.

Iruñean, 2016ko otsailaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak ETA-ren indarkeria terrorista gaitzesten baitu.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2016ko otsailaren 8an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak irmoki eta berariaz gaitzesten du ETAk gauzatutako indarkeria terro-

rista, eta baldintzarik gabe desegin dadila exijitzen du.”

Iruñean, 2016ko otsailaren 8an.

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, San Martin Doktorea anbulatorioko eta Nafarroako Ospitaleguneko larrialdi zerbitzuen kolapsoari buruzkoa.*BEGOÑA GANUZA BERNAOLA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Begoña Ganuza Bernaola andreak aurkeztutako galdera, San Martin Doktorea anbulatorioko eta Nafarroako Ospitaleguneko larrialdi zerbitzuen kolapsoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu taldeko Begoña Ganuza Bernaola andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

– Pentsan San Martin Doktorea anbulatorioko eta Nafarroako Ospitaleguneko larrialdi zerbitzuen kolapsoari buruz agertu diren albisteak ikusita, Osasun Departamentuak zer plan dauka kolapso hori ekiditeko?

Iruñean, 2016ko otsailaren 2an

Foru parlamentaria: Begoña Ganuza Bernaola

Galdera, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren arauketari buruzkoa.*M.^a ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea M.^a Isabel García Malo andreak aurkeztutako galdera, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren arauketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako lehendakariordeak ahoz erantzun diezaion:

Otsailaren 2an adierazi zenuen Gobernuak enplegu sortuari esker hartu ahal izanen zuela

bere gain Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren arauketa berria, zeina horrela deitzen baita orain. Egun horretan berean, erregistratutako langabeziaren datuak zioen Nafarroan 1.970 langabetu gehiago dagoela.

Datu hori kontuan hartuta, nola egingen duzue?

Iruñean, 2016ko otsailaren 2an.

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, Nafarroan langabeziak gora egin duela-eta Eskubide Sozialetako kontseilariak egindako balorazioari buruzkoa.

M.^a ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea M.^a Isabel García Malo andreak aurkeztutako galdera, Nafarroan langabeziak gora egin duela-eta Eskubide Sozialetako kontseilariak egindako balorazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako lehendakariordeak ahoz erantzun diezaion:

– Nola liteke Eskubide Sozialetako lehendakariordeak balorazio positiboa egitea Nafarroan langabezian 1.970 pertsona gehiago egoteaz?

Iruñean, 2016ko otsailaren 2an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, etxebizitza babestuari buruzko foru lege berri bat onesteko ekimenari buruzkoa.

LUIS ZARRALUQUI ORTIGOSA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak aurkeztutako galdera, etxebizitza babestuari buruzko foru lege berri bat onesteko ekimenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako Luis Zarraluqui Ortigosa foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ematen dizkion ahalmenez baliatuz eta ondoko zioen azalpenean adierazitakoa oinarri:

Gobernuari babesa ematen dion parlamentu-talde bateko parlamentari batek batzordean egindako adierazpenak direla medio jakin dugu Eskubide Sozialetako Departamentua etxebizitza babestuari buruzko lege proiektu bat prestatzen ari dela.

Gai horrek parlamentari honengan eta bere parlamentu-taldean pizten duen interesa dela-eta, eskatzen da Osoko Bilkurarako onartu eta izapidetu dadin honako galdera hau, Nafarroako Gobernuak gai horri buruzko azalpenak eman ditzan ahoz:

- Ekimen hori dagoen ala ez, eta zertan den.
- Horren helburuak.
- Jorratuko dituen alderdiak eta gogoan izan ditakezuen neurririk azpimarragarrienak.
- Baliatuko den parte-hartze prozesua.

Iruñean, 2016ko otsailaren 4an

Foru parlamentaria: Luis Zarraluqui Ortigosa

Galdera, eskola-porrotari aurre egiteko Europako Gizarte Funtsak finantzatutako programari buruzkoa.

MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztutako galdera, eskola-porrotari aurre egiteko Europako Gizarte Funtsak finantzatutako programari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Teresa Sáez Barrao andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, otsailaren 18ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion.

Hezkuntza Departamentuaren arabera, kontrol berri batzuk ezarri beharra dago, DBHko 3. mailan Matematika ikasgaiari ematen diren eskolen eraginkortasunari buruzkoak. Antza denez, Europako Gizarte Funtsak finantzatutako programa bat ezarri nahi da, eskola-porrotari aurre egiteko xedez.

Ez al litzateke egokiagoa izanen eskola-porrota murriztera bideratutako eduki zehazdun proiektuak egitea, beharrezkoak izanen liratekeen gastuak garatuko lituzketen eta Europako Gizarte Funtsaren programa justifikatzen ahal luketen atalekin?

Iruñean, 2016ko otsailaren 4an

Foru parlamentaria: María Teresa Sáez Barrao

Galdera, Nafarroako Kutzaren Gizarte Ekintzaren ondasun artistiko, kultural eta higiezin inbentarioari buruzkoa.

PATXI LEUZA GARCÍA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Leuza García jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Kutzaren Gizarte Ekintzaren ondasun artistiko, kultural eta higiezin inbentarioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Patxi Leuza García jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2012ko urriaren 22an, parlamentari honek mozio bat eraman zuen Osoko Bilkurara, zeina aho batez onetsi baitzen, jakite aldera ba ote zegoen aurrena Banca Cívican eta hurrena Caixa-banken sartzeko prozesutik at egon diren Nafarro-

ako Kutzaren Gizarte Ekintzaren ondasun artistiko, kultural eta higiezin guztien katalogo edo zerrendarik.

Mozioa heldu zen lehenago galdera bat egin niolako urte hartan Nafarroako Gobernuko eleduna zen Sánchez de Muniáin jaunari, eta erantzunean adierazi zidalako Kultura, Turismo de Erakundeekiko Harremanetarako Departamentuan ez zegoela halako informaziorik agiriturik.

Ziurtzat emanda Nafarroako Gobernuak ez zuela bete mozioan jasotako erabaki nagusia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baitzen, behin inbentario hori eginda, Nafarroako Parlamentuari horren berri ematera, eta ondare horren inbentariarik ez edukitzeak izan dezakeen arriskua ikusita, parlamentari honek honako ahozko galdera hau aurkeztu du:

Existitzen al da inbentario hori? Existitzen baldin bada, herritar guztiek ezagutzeko moduan al dago, Gobernu orok bete beharreko gardentasunari zor zaion bezala?

Nafarroako Gobernuak ba al du inbentario hori Nafarroako Parlamentuari aurkezteko asmorik?

Iruñean, 2016ko otsailaren 4an

Foru parlamentaria: Patxi Leuza García

Galdera, NA-6900 errepideak Cascante-Fitero tartean duen egoerari buruzkoa.

ARANZAZU IZURDIAGA OSINAGA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak aurkeztutako galdera, NA-6900 errepideak Cascante-Fitero tartean duen egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko otsailaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Arantxa Izurdiaga Osinaga andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren

babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

–Gobernuak ba al daki NA-6900 errepidea zer egoeratan dagoen –zehazki, Cascante-Fitero tartea– ?

–Gobernuak ba al du galtzadaren egoera egokitzeko inolako neurririk hartzeko asmorik?

–Baiezkoan, noiz aurreikusten duzue hasiko direla konponketa-obrak?

–Gobernuak ba al daki zer egoeratan dagoen Alhama ibaiaren gaineko zubia?

–Nafarroako Gobernuak aurreikusita al dauka txosten tekniko bat egitea, Alhama ibaiaren gaineko zubia zer egoeratan dagoen ebaluatzeko?

–Zer jarduketa-neurri egitea aurreikusi du? Kasua bada, noiz aurreikusten du hasiko direla jarduketak?

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 29an

Foru parlamentaria: Arantxa Izurdiaga Osinaga

Galdera, eskola-mapari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, eskola-mapari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko otsailaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu taldeari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Hezkuntza Departamentuak ba al du asmorik eskola-mapa deitu izan den horretan inolako aldataririk egiteko?

Corellan, 2016ko urtarrilaren 29an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Zika birusari buruzko jarduketa-protokoloa dela-eta.

CARLOS GARCÍA ADANERO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos García Adanero jaunak aurkeztutako galdera, Zika birusari buruzko jarduketa-protokoloa dela-eta.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko otsailaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Carlos García Adanero jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osasuneko kontseilariak idatziz erantzun diezaion:

- Nafarroako Gobernuak Zika birusari buruzko jarduketa-protokolorik prestatu al du?

Iruñean, 2016ko otsailaren 1ean

Foru parlamentaria: Carlos García Adanero

Galdera, jakiteko ea zuzemenik egin den Nafarroako Unibertsitate Publikoaren aitzinean, Haur eta Lehen Hezkuntzako maisu-maistra gradu-ko ikasleek ingeleseko C1 edo B2 maila frogatuz titulua lor dezaten.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko ea zuzemenik egin den Nafarroako Unibertsitate Publikoaren aitzinean, Haur eta Lehen Hezkuntzako maisu-maistra gradu-ko ikasleek ingeleseko C1 edo B2 maila frogatuz titulua lor dezaten.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko otsailaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Hezkuntza Departamentuak inolako zuzemenik egin al du Nafarroako Unibertsitate Publikoaren aitzinean, Haur eta Lehen Hezkuntzako maisu-maistra gradu-ko ikasleek ingeleseko C1 maila frogatuz titulua lor dezaten?

Hezkuntza Departamentuak inolako zuzemenik egin al du Nafarroako Unibertsitate Publikoaren aitzinean, Haur eta Lehen Hezkuntzako maisu-maistra gradu-ko ikasleek gutxienez ere ingeleseko B2 maila frogatuz titulua lor dezaten?

Corellan, 2016ko otsailaren 3an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Nafarroako Gobernuak hartutako neurriei buruzkoa, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa eginen duten Ingelesez Ikasteko Programako ikasleei jarraipen-aukera emate aldera.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak hartutako neurriei buruzkoa, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa eginen duten Ingelesez Ikasteko Programako ikasleei jarraipen-aukera emate aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko otsailaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Hezkuntza Departamentuak zer neurri hartu ditu Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa eginen duten Ingelesez Ikasteko Programako ikasleei hurrengo urteotarako jarraipen-aukera emateko?

Corellan, 2016ko otsailaren 3an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Done Jakue Bideko bizitegi-eremuaren Udalez gairako proiektu sektorialaren bidez antolatutako hirigintza-eremuari buruzkoa.

LUIS ZARRALUQUI ORTIGOSA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak aurkeztutako galdera, Done Jakue Bideko bizitegi-eremuaren Udalez gairako proiektu sektorialaren bidez antolatutako hirigintza-eremuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko otsailaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako Luis Zarraluqui Ortigosa foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamendua ematen dizkion ahalmenez baliatuz eta ondoko zioen azalpenean adierazitakoa oinarri:

Nafarroako Gobernuak zenbait azterlan egitera doa 2016an, Donejakue Bideko bizitegi-eremuaren Udalez gairako proiektu sektorialaren bidez antolatutako hirigintza-eremua dela-eta. Antza denez, antolamendu-aukera ezberdinak aztertzen ari dira eremu horretarako. Hori ikusita, eta kontuan hartuta horrek dituen inplikazioak, arestian adierazitako gaiari zuzendutako galdera hau onartu eta izapidez eskatzen du, idatziz erantzun dakion:

- Eremu horren Udalez gairako proiektu sektoriala idazteko ordaindu den diru-kopuru osoa.

- Urbanizazio-proiektua eta birzaitze-proiektua idatzi dituzten lan-taldeei ordaintzea aurreikusitako eta adostutako ordainsarien kostuak.

Iruñean, 2016ko otsailaren 4an.

Foru parlamentaria: Luis Zarraluqui Ortigosa
